

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ERRIBERAGOITIKO UDALA

COVID-19ak eragindako larrialdi egoera arintze aldera laguntzak emateko deialdia

Erriberagoitiko Udalak, 2020ko maiatzaren 27an balio osoz egindako osoko bilkuran, erabaki zuen onestea COVID-19aren pandemiak eragindako larrialdi egoera dela-eta autonomo eta enpresei laguntzak emateko deialdia eta hura arautuko duten oinarriak. Horri buruz onartutako erabakia betez, honen bidez, ALHAOn argitaratzen dira oinarriok, objektibotasun, lehia eta publikotasun printzipioen bermetzat.

Pobes, 2020ko ekainaren 4a

Alkatea

JESÚS BERGANZA GONZÁLEZ

Oinarri arautzaileak

1. Aurrekontuko kreditua

Aipatutako laguntzen aurreikusitako zenbatekoa 10.000 euro da eta 2020ko ekitaldi ekonomikoko udal aurrekontuaren 433 471000 partidaren kontura ordainduko da.

2. Dirulaguntzak emateko araubidea

Eskaerak aurkeztu beharko dira laguntzak jasotzeko, eta laguntzok banatzeko Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak ezarritako publizitate, lehia, gardentasun, objektibotasun, berdintasun, diskriminaziorik ez, eta eraginkortasun eta efizientziaren printzipioak hartuko dira aintzat.

Autonomo edo enpresa txiki edo ertain eskatzaile bakoitzeko laguntza bat baino ez da emango.

3. Laguntzaren xedea, baldintzak eta helburua

Laguntzaren helburua: COVID-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko alarma egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren ondorioz udalerrian itxi ziren denda eta enpresa kaltetuen diru sarrera gabezia arintzeko, Erriberagoitiko udalerriko autonomo eta enpresa txiki eta ertainei laguntzea.

Jarduera hauetarako eman daiteke laguntza:

— Tabernak eta jatetxeak.

Itzuli beharrik gabeko 10.000 euroko dirulaguntza lerroa jartzen da abian hirugarren sektorerako (taberna, jatetxe, ostatu, zerbitzuak...).

Itzuli beharrik gabeko diru hori irizpide honen arabera banatuko da:

— 2.000 euro taberna eta jatetxeei eragindako galerengatik. (gehienez eskaera 1 establezimenduko).

4. Eskatzaileek bete beharrekoak

- Erriberagoitin izango da laguntza eskaera egin duen autonomoaren enpresaren egoitza soziala.
- Haren jarduna Erriberagoitin garatuko da.
- JEZe an alta emanda egon behar du.
- Autonomoen kuoten ordainketa egunean izan behar du.
- Dirulaguntza eskaera egin orduko bere ohiko jardunera itzulita egongo da.

5. Instrukziorako eta ebazpenerako organo eskuduna

Udal informazio batzordeak aztertuko ditu eskaerak, eta irizpena emango du, gero ebazpen proposamenaren oinarria izango dena.

Alkateak emango du behin betiko ebazpena, dekretu bidez, eta erabaki horren berri emango dio Udalbatzari egingo den hurrengo bilkuran.

Ebazpenean onuradunen eta jasoko dituzten zenbatekoen zerrenda jasoko da. Dirulaguntza ukatzen bada, ukatze horren arrazoiak emango dira.

6. Eskabideak eta agiriak aurkezteko epea

Eredu ofizialarekin (I. eranskina) bat etorriko dira eskaerak eta Erriberagoitiko Udalaren Erregistroan aurkeztu beharko dira (Araba kalea, 2); halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16. artikuluan adierazitako edozein bide erabili ahalko da eskaerak aurkezteko.

Horren harira, oinarri hauekin batera doa aurkeztu behar den inprimaki eredu, eta jendeak eskuragarri izango du udalaren webgunean ere. Ereduarekin batera, deialdi honetako 7. oinarrian aipatutako agiriak ere eraman behar dira.

Eskaerak aurkezteko hogeita hamar egun izango dira, oinarri hauek eta deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Eskaerak edo berarekin batera aurkeztutako nahitaezko agiriek hutsen bat badaukate edo osorik ez badaude, interesdunei hamar eguneko epea emango zaie, errekerimenduaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, hautemandako akatsak zuzentzeko; epe hori igaro eta esandako akatsak ez badituzte zuzendu, beren eskaeran atzera egiten dutela ulertuko da eta prozedura artxibatu egingo da.

7. Aurkeztu beharreko agiriak

1. Eskaera orria (I. eranskina).
2. JEZe an altan izatearen frogagiria.
3. Autonomoen ordaindutako azken ordainagiria eta, enpresek, Gizarte Segurantzari dago-kion azken ordainagiria.
4. NANaren fotokopia.
5. Jarduerari buruzko memoria laburra (30 lerro, gehienez ere).
6. Zerbitzua eten izanaren edo kontuen jardueraren egiaztatagiria.

8. Ebazteko eta jakinarazteko epea

Ebazteko eta jakinarazteko hamar eguneko epea izango da eskaera aurkezten denetik aurrera, eta isiltasunak esan nahiko du eskaera ezetsi egin dela, 38/2003 Legearen 25.5 artikuluan zehazten den bezala.

9. Administrazio bidearen amaiera

Dirulaguntza ebazteko egintzak administrazio bidea amaitzen du, eta haren aurka berraztertzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio eman duen organoari, 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatutakoaren arabera, hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera; edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian.

10. Arau hausteak eta zehapenak

Dirulaguntzen arloko arau hauste eta zehapenei buruzko arloan, osorik aplikatuko dira Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak IV. tituluan jasoriko arauak eta lege horren arautegia onetsi zuen 887/2006 Errege Dekretuak IV. tituluan xedatutakoa.

11. Araudi aplikagarria

Oinarri arautzaile hauetan aurreikusita ez dagoen guztian, honako hauetan xedatutakoa aplikatuko da: Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren arautegia onesten duena.

Eskatzaileei ohartarazten zaie deialdi honen bidez araututako laguntzaren bat eskatzeak eta jasotzeak berekin ekar dezakeela beste administrazio publiko batzuei eskatutako eta haiek emandako laguntzei uko egin edo itzuli behar izatea edo beste administrazio horrek berak, zuzenean, laguntzarik ez ematea.

I. eranskina

Eskabidea: autonomo eta enpresentzako laguntzak, COVID-19aren pandemiak eragindako larrialdi egoera dela eta

..... jaunak/andreak, (NAN zk:;(e) ko herritarra; helbidea:;
Telefonoa:.....)

autonomo den aldetik/.....enpresaren ordezkaria den aldetik (helbidea:), honako hau

Adierazten du

Jakin duela Erriberagoitiko udalak laguntza deialdia egin duela COVID-19aren pandemiaren krisiak eragindako defizita arintzeko, eta bertan jasotako oinarrien berri izan duela eta, beraz,

Eskatzen du

Lehenengoa. Deialdi honetan hartarako ezarritako dirulaguntza eman dakiola.

Horretarako, deialdiaren 7. oinarrian adierazitako agiri guztiak aurkezten ditu, zeinak egiazkoak direla ziurtatzen baitut.

Bigarrena. Laguntza emanez gero, ordezkatzeko dudaren erakundearen kontu zenbaki honetan sartzea:

Erakundea:

Kontu zk.:

Titularra:

NANa:

....., 2020koaren(a).